

Deliberazio prozesua: Sarbil, lurraldea, energia eta etorkizuna

PROZESUAREN MEMORIA TXOSTENA



2026ko ekainak 19



Aurkibidea

Sarrera	2
Testuingurua.....	2
ABIAPUNTUA	2
ALDAKETAK.....	2
Prozesuaren ezaugarriak	3
HELBURUAK ETA EMAITZAK	3
METODOLOGIA ETA JOKO ARAUAK	3
PROZESUAREN GARAPENERAKO EGITURA.....	4
Prozesuaren garapena.....	5
AURKEZPEN SAIOA (MARTXOAK 30)	5
1. LAN SAIOA: TESTUINGURUA, ADITUAK (APIRILAK 14)	6
2. LAN SAIOA: INPLIKATUAK ETA IKUSPUNTUAK (APIRILAK 14)	7
3. LAN SAIOA: DELIBERAZIOA (APIRILAK 14)	8
ETXAURIKO PROPOSAMENA	9
AURKEZPENA: UDALAREN ERANTZUNA (MAIATZAK 4).....	9
Prozesuaren emaitza	10
AKORDIOA ALDATZEKO PROPOSAMENAK	10
Tokiko partaidetza.....	10
Energia prezio merkeagoan.....	11
Onurak bailaran	12
Ingurumenaren babes handiagoa	13
Proiektu gehiagorik ez Sarbilen	14
Jarraipen batzordea.....	14
ETXAURIKO UDALARENTZAT PROPOSAMENAK	15
Udal planak eta arauak.....	15
Udalak herritarren ordezkari eta ahots.....	16
ALEGAZIOAK	16
Prozesuaren balorazioa	16
Aurrera begirakoak.....	17
Eranskinak	17

Sarrera

Memoria honetan, 2006ko udaberrian Etxauriko Udalak egindako deliberazio prozesuaren nondik norakoak jaso ditugu: abiapuntua, emandako pausoak, egindako saioak eta emaitza. Txosten honen eranskin gisa, saioetan erabilitako aurkezpenak eta saioen aktak gehitu ditugu.

Testuingurua

ABIAPUNTUA

2026ko urtarrilean, Etxauriko Udala harremanetan jarri zen Emunekin deliberazio prozesu bat martxan jartzeko. Prozesu mota hori [martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legeak](#) arautzen du, eta horren arabera proposamen bat egitea eskatu zion udalak Emuni.

Deliberazio prozesua martxan jartzeko erabakiaren atzean, Sarbil mendian 62 Hektareatako 9 parke fotovoltaiko egiteko proiektu proposamena zegoen, Sarbil Eguzki S.L.-k Nafarroako Gobernuan aurkeztu zuena 2025eko abenduan.

Nafarroako Gobernuaren eskumena da proiektu mota hauen ingurumen, industria eta urbanizazio bateragarritasuna aztertzea eta instalazioari baimena ematea. Etxauriko Udalak proiektuarekiko erabaki eskumenik ez duenez, sustatzailearekin proiektua gauzatzeko baldintza batzuen [akordio bat](#) sinatu zuen 2025eko otsailean, proiektua hobetzeko asmoz ingurumen eta gizarte ikuspegitik, eta proiektua herritarron onerako eta deskarbonizazioko helburuak betetzeko bidean ezartzeko.

Proiektuak harrabots handia sortu du herrian, eta Etxauriko Udalak deliberazio prozesua martxan jartzea erabaki zuen, batetik, instalazio fotovoltaikoaren inguruko argudio eta motibazioak herritarrekin kontrastatzeko, eta, bestetik, Etxauriko Udalak Sarbil Eguzki S.L. sustatzailearekin sinatutako akordioan ezarritako baldintzen egokitasuna eztabaidatzeko.

2026ko otsailean, Etxauriko Udalak Emunen proposamen onartu, eta apirilean prozesua abiatzeko konpromisoa hartu zuen.

ALDAKETAK

[2026ko martxoaren 3ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#), Nafarroako Gobernuak Sarbil mendiko proiektua jendaurreko informazio eta kontsultetan argitaratu zuen, eta alegazioak aurkezteko epea apirilaren 20an jarri.

Etxauriko Udalak [epea luzatzeko eskaera](#) egin zion Nafarroako Gobernuari, iritzita ez zegoela denbora eta berme nahikorik proiektuari buruzko deliberazio prozesua egin ahal izateko. Nafarroako Gobernuak [epea luzatzea onartu zuen](#) martxoaren 12an, maiatzaren 12ra arte. Beraz, Etxauriko Udalak eta Emunek hasierako planteamendua aldatu, eta deliberazio prozesua epe horren barnean egiteko aldaketak egin zituzten, herritarren eskaeren arabera alegazioak jartzeko aukera izan zezan udalak.

Epeek hala baldintzatuta, deliberazio prozesua denbora tarte oso motzean egin behar izan da, deliberazio prozesuen ezaugarri diren hausnarketa eta eztabaiden sakontasuna hein batean mugatuz.

Prozesuaren ezaugarriak

Udalak eskatu bezala, Etxauriko deliberazio prozesuak Nafarroako parte hartze demokratikoari buruzko [martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea](#) izan du oinarri. Legeak arautzen duen moduan egin da prozesua, eta kontuan hartu da, halaber, Nafarroako Gobernuak toki-entitateei zuzendutako dirulaguntza deialdia, [herriarren parte-hartzea bultzatu eta sustatzeko](#) dena.

Aipatutako legearen 16, 17, 18 eta 19. artikuluek jasotzen dituzte deliberazio prozesu baten nondik norakoak. Bertan adierazten denez, **udalaren eskumenak diren gaien inguruan soilik** eztabaidatu eta erabaki daiteke honelako prozesu deliberatiboetan. Herrian eztabaida sortu duen instalazio fotovoltaiakoaren gainean Etxauriko Udalak erabaki ahalmenik ez duenez, **bere eskumenekoa den akordioa izan da eztabaidagai nagusia prozesu honetan**: Etxauriko Udalak eta Sarbil Eguzki S.L.-k 2025eko otsailean [sinatutako akordioa](#).

HELBURUAK ETA EMAITZAK

Prozesu honen helburu nagusia izan da herritarrek lehen eskutik informazioa jaso, eta beraien interes, ideia, jarrera, iritzi eta proposamenak modu sistematikoan eta gardenean jasotzea, akordioaren inguruan udalak bere postura erabaki dezan lagungarri izango zaion emaitza txosten bat sortzeko.

- **Informazio gardena:** herritarrek proiektuaren ezaugarri teknikoak eta ingurumen-inpaktua eta lege-markoa (4/2022 Foru Legea) ezagutzea.
- **Eztabaida eraikitzailea:** aldeko eta kontrako jarrerak errespetuzko esparru batean lantzea.
- **Etxauriko Proposamena:** Etxauriko Udalak proiektuaren aurrean izan behar duen jarrera zehaztea eta, hura onartzekotan, zein baldintza (ingurumena, jabetza, onura soziala) ezarri behar zaizkion definitzea.

Prozesuaren emaitzak:

- Proiektuari jarri beharreko baldintzak.
- Nafarroako Gobernuari aurkezteko alegazioetarako oinarriak.
- Udalarentzat edo bestelako eragileentzat proposamenak.

METODOLOGIA ETA JOKO ARAUAK

Prozesuak entzute aktiboa eta deliberazioa izan ditu ardatz. Ez da "bai" edo "ez" hutsa bilatu, baizik eta argudioetan oinarritutako adostasunak edo disentsuak eraikitzea.

Iraupena: aurkezpen saio bat, hiru lan saio eta itzulketa saio bat izan dira, guztira bost saio. Martxoaren 30ean hasi eta maiatzaren 4ra arte luzatu da.

Parte hartzaileak: prozesu osoa bailarako herritar guztientzat irekia egon da, eta aniztasuna bermatzeko saiakera egin da (adinak, jarrerak, sentsibiltate politikoak, etab.).

Dinamikak: hitzaldi laburrak, inplikatuaren azalpenak eta talde txikietako lana tartekatu dira.

Galdera: prozesuak iraun duen denboran, azpiko galdera izan dugu presente, eztabaida bideratzen laguntzeko asmoz. Galdera erabakitzerakoan, hainbat irizpide eduki dira kontuan: itxiegia edo zabalegia ez izatea, erantzun bakarrekoea ez izatea, komunitatearen kezkei bide ematea, ikuspegi eta

idea desberdinak emateko aukera ematea, epe luzerako ideiak ere eman ahal izatea... Hau izan da galdera:

Zein baldintza eta berme jarri behar ditu Etxauriko Udalak Sarbilgo proiektuarentzat, gure ingurumena babesteko eta herritarren onura bermatzeko?

Joko arauak: deliberazio prozesuak berme batzuk izan zitzaizkion, eztabaidarako hainbat joko arau adostu ziren prozesua abiatzerakoan.

1. **Entzute aktiboa eta errespetua:** entzute aktiboa, ikuspegi guztiak mahai gainean jartzea eta eztabaida eraikitzailea izatea.
2. **Iritzietatik datuetara pasatzea:** orain arteko eztabaidak oinarri teknikoetara eramatea, informazio gardena ematea, adituen ekarpena eta inplikatuak ikuspuntuak ematea.
3. **Bai/Ez hutsetik harago,** erantzun konplexuak bilatzea, argudioetan oinarritutako adostasunak bilatzea eta elkarriketaren oinarritutako proposamenak sortzea.

PROZESUAREN GARAPENERAKO EGITURA

Hainbat eragile identifikatu ziren prozesua abiatzerakoan, eta bakoitzaren egitekoak zehaztu ziren prozesuak hainbat berme izan zitzaizkion.

Prozesuaren arduraduna: Etxauriko Udala.

Egitekoak: prozesua baliabidez hornitu eta informazio eta komunikazioan lidergoa izateaz gain, emaitzekiko konpromiso maila zehaztea eskatu zitzaion udalari, eta herritarrei hala adierazi zitzaion aurkezpen saioan.

Prozesuaren bideratzailea: Emun aholkularitza.

Egitekoak: Emunen ardura izan da prozesuaren integritatea bermatzea, prozesuaren diseinua eta dinamizazioa, saioetako erraztailetza lanak eta emaitzak prestatzea.

Talde mistoa: Etxauriko Udalak, herri eragileak eta Emunek osatutako mahaia.

Prozesua abiatu aurretik, talde misto bat sortzea proposatu zion Emunek Etxauriko Udalari. Talde misto horretan, aurreikusi zen Sarbilgo proiektuaren inguruan sortutako herri eragile desberdinak egotea, eta prozesuari buruzko erabakiak bertan hartzea: prozesuan moldaketak egitea, hizlariak adostea, prozesuko bestelako pausoak balidatzea... Udalak onartu zuen, eta Emun herri eragile hauekin jarri zen harremanetan, Sarbilgo proiektuaren inguruan sortu zirelako eta iritzia publiko bat adierazia zutelako:

1. Cabezón de Etxauri Bizirik
2. Etxauribar Klima eta Burujabetza


Cabezón de Etxauri Bizirik taldeak ezezkoa esan zuen, eta, eragile bakarrarekin talde mistoa sortzeak zentzurik ez zuela ikusirik, bertan behera geratu zen talde mistoaren sorrera.

Talde operatiboa: Etxauriko Udala eta Emun aholkularitza.

Egitekoak: prozesuak iraun duen denboran, erabaki operatiboak hartzeko gunea izan da.

Prozesuaren garapena

Prozesuak aurkezpen saio bat, hiru lan saio eta itzulketa saio bat izan ditu, guztira bost saio. Denak Etxauriko udaletxean izan dira, 18:00etatik 20:00etara.



AURKEZPEN SAIOA (MARTXOAK 30)

Helburua: prozesuaren gardentasuna bermatzea izan da helburu nagusia, eta Etxauriko Udalaren prozesuaren emaitzarekiko konpromisoa azaltzea. Ordu eta erdi iraun du.

Deliberazio prozesuaren nondik norakoak aurkeztu dira: prozesuaren testuingurua eta helburuak, hasierako asmoa eta aldaketak, ibilbide orria eta emaitzak, egitura, saioen egutegia eta prozesuaren joko arauak. Prozesuaren zergatia azaldu da, eta udalak herritarren eskaerei erantzuteko eta parte hartzea bermatzeko bere konpromisoa agertu du. Galde-erantzunetarako tarteak egon da bukaeran.

Asistentzia: 36 pertsona (16 emakume eta 20 gizon)



1. LAN SAIOA: TESTUINGURUA, ADITUAK (APIRILAK 14)

Helburua: bailaran sortutako eztabaida iritzietatik datuetara pasatzea. Oinarri tekniko eta juridiko komuna lortzea prozesuko partaideen artean.

Lehen lan saioa izanik, berriro prozesuaren azalpena egin da hasieran, eta, ondoren, saioaren helburuari ekin zaio: aurkezpen teknikoen bidez, Sarbilgo proiektuari eragiten dioten markoak azaltzea.

1. Marko juridikoa eta konpetentziak: martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea, Klima Aldaketa eta Energia Trantsizioari dagokiona. Nafarroako Gobernuaren proiektuen autorizazio prozedura administratiboa eta konpetentziak.
2. Lurralde ordenamendua: Plan de Ordenación del Territorio 3 (POT3), Erdialdea. Paisaian integrazioa, lurraldea ez zatitzea eta atzeraezintasuna (proiektuaren desmantelamendu plana).
3. Ingurumenarekin bateragarritasuna: Ingurumen Inpaktuaren Azterketen atalak eta ezaugarriak, azterketa horien arautegia eta fotovoltaiako Vs. "agrovoltaiako" izaera.
4. Etxauribarko energia kontsumoa eta Sarbilgo proiektuaren kobertura eta soberakinak.



Lau arloetako bakoitzerako aditu bat bilatzen saiatu arren, ezinezkoa izan da inor aurkitzea. Adituen aukeraketan erabilitako irizpide nagusiak bi izan dira: Sarbilgo proiektuaren prozesu administratiboan inplikaturik ez egotea eta proiektuaren inguruko iritzirik publikorik eman gabe egotea.

Zortzi aditurekin egon gara: abokatuak, unibertsitateetako irakasleak, elkarteetako kideak, Nasuvinsa eta Nafarroako Gobernuako sail desberdinak... Baina bik prozesu administratiboa gertu zeukaten, eta gainerako bostek agenda eta denbora arazoak agertu zituzten.

Horren ordez, Emuneko Mikeldi eta Uxune bideratzaileek lege eta arau markoak aztertu, eta aurkezpen teknikoa egin dute, baina galde-erantzunetan ezin izan dira hainbat zalantza argitu. Egoera honek prozesuan ondoren ere egon diren hainbat galdera erantzun gabe geratzea ekarri du, esate baterako, proiektuaren jabetza komunitarioari buruzkoak. Dena den, bukaerako balorazioa ona izan da, markoaren kokapena egin ahal izan delako.

Aurkezpenen ondoren, taldetan banatu eta ingurumenerako eta ibarrean bizi diren pertsonentzat dauden aukera eta arriskuen inguruko azterketa egin dugu, datozen saioetarako lehen oinarri gisa.

Asistentzia: 36 pertsona (15 emakume eta 21 gizon)

2. LAN SAIOA: INPLIKATUAK ETA IKUSPUNTUAK (APIRILAK 14)

Helburua: ikuspegi ezberdinak (enpresa sustatzailea, herritar plataformak, erakundeak...) mahai gainean jartzea, tentsioak, kezkak eta zalantzak azaleratzea.

Behin markoak eta testuingurua aztertuta, bigaren lan saio honetan iritzietan zentratu nahi izan da. Horretarako, Sarbilgo proiektuarekin lotura izan dezaketen iritzi eta eragile desberdinei eman nahi izan zaie hitza, eta gonbita luzatu zaie euren iritzia azalduz hitzaldia emateko, denak baldintza berdinetan, denbora tarte berdinarekin:

1. Sarbil Eguzki S.L. enpresa sustatzailea (proiektua aurkeztu duena).
2. Cabezón de Etxauri Bizirik plataforma (proiektuaren aurka dagoena).
3. Etxauribar Klima eta Burujabetza (trantsizio energetikora bidean, proiektuak aztertu behar direla dioena).
4. Etxaurindarra elkarte (2023an sortutako energia komunitatea, herritarren elkarte gisa eta energia gaiak lantzen dituen, eragile izan daitekeelakoan).
5. Etxauriko Udala (proiektuaren sustatzailearekin akordioa sinatu duena).

Kasu honetan ere Cabezón de Etxauri Bizirik plataformak hitzaldia ez ematea erabaki zuen. Talde mistoa sortzeko momentuan egin zitzaion hitzaldi honetarako gonbita ere, baina prozesuaren inongo ataletan ez parte hartzeko erabakia hartu zuten.

Horren ondorioz, lau hitzaldi izan ditugu saio honetan, gainerako guztiena. Hitzaldi guztiak entzun ondoren, galdera adostuen tarte izan da: taldeka banatuta, hizlarietako egiteko galderak adostu dituzte herritarrek, eta, ondoren, galdera guztiak erantzuteko tarte izan dugu.

Asistentzia: 35 pertsona (15 emakume eta 20 gizon)



3. LAN SAIOA: DELIBERAZIOA (APIRILAK 14)

Helburua: proposamenak jaso eta adostasunetara iristea.

Hirugarren saio honetan, herritarren ideiak eta proposamenak jaso eta adosteko talde dinamika egin dugu:

- Hiru taldetan banatuta, bakoitzak gai bat landu du:
 1. mahaia: jabetza eta energiaren prezioa.
 2. mahaia: ingurumenaren eta Sarbilen babesa.
 3. mahaia: onura sozialak eta jarraipen batzordea.



- Taldez aldatzen joan gara, denak mahai guztietatik pasa daitezen. Guztira hiru txanda egin ditugu.
- Txanda bakoitzean, aurreko taldeak egindako lanaren gainean eraikitzen joan gara, adostasunetara iristeko.
- Bukatzeko, proposamen guztiak panel batean bateratu, eta proposamenak baloratu ditugu, adostasunak non dauden eta garrantzia handiena zerk hartzen duen ikusi ahal izateko.

Hirugarren saio honekin amaitu dira lan saioak.

Asistentzia: 20 pertsona (10 emakume eta 10 gizon)



ETXAURIKO PROPOSAMENA

Hiru lan saioak bukatuta, Emunek Etxauriko Udalarentzako herritarren proposamenak dokumentu batean bildu ditu, hiru saioetako garapena, edukiak eta ideiak kontuan hartuta. Udalak proposamen horiek aztertu ditu, maiatzaren 4ko saioan erantzun bat emateko proposamen bakoitzari.

Herritarren proposamenak eta Etxauriko Udalaren erantzunak hurrengo ataletan jaso ditugu.

AURKEZPENA: UDALAREN ERANTZUNA (MAIATZAK 4)

Helburua: herritarren deliberazio prozesuan herritarrek egindako proposamenei udalak erantzuna ematea.

Saio honetan, Emuneko aholkulariek herritarren proposamen guztiak aurkeztu dituzte lehenbizi. Partaideek galderak egiteko aukera izan dute, eta dena jasota dagoela baieztatu dute.

Ondoren, Idoia Aritzalak, Etxauriko alkateak, Etxauriko Udalaren izenean hitza hartu du, eta herritarren proposamenak erantzun ditu. Bukatzeko, galde-erantzunen tarte egon da eta horrekin aurkezpena eta prozesuaren saioak bukatutzat eman dira.

Asistentzia: 29 pertsona (17 emakume eta 12 gizon)



Prozesuaren emaitza

Atal honetan, herritarren proposamenak eta udalaren erantzunak osorik ekarri ditugu, deliberazio prozesu honen emaitza nagusi gisa. Jasotako proposamenak bi multzotan eta azpiatal hauetan banatu dira:

- **Udalak Sarbil Eguzki S.L. sustatzailearekin sinatutako akordioa aldatzeko proposamenak:**
 1. Tokiko partaidetza
 2. Energia prezio merkeagoan
 3. Onurak lehenbizi bailaran
 4. Ingurumenaren babes handiagoa
 5. Proiektu gehiagorik ez Sarbilen
 6. Jarraipen batzordea
- **Udal politiketan kontuan hartzeko proposamenak**
 1. Udal planak eta arauak
 2. Udala herritarren ordezkari eta ahots

Horrez gain, udalak erabaki du **alegazioak egitea proiektuari**. Alegazio horietan, herritarrek egindako hainbat proposamen txertatu dira, udalak aztertu dituen beste hainbat atalekin batera.

AKORDIOA ALDATZEKO PROPOSAMENAK

Atal honetan, Etxauriko Udalak Sarbil Eguzki S.L enpresarekin sinatutako hitzarmena aldatzeko proposamenak jaso ditugu. Prozesuan zehar ez da egin akordioa bertan behera uzteko proposamenik; oro har, Nafarroako Gobernuak Sarbilgo proiektuari baiezkua emango balio, horrelako akordio bat edukitzea onuragarri izango dela ondorioztatu da.

Tokiko partaidetza

AKORDIOAN JASOTZEN DENA

"...se considerarán proyectos de generación renovable con participación local aquellos en los que se acredite que se ha ofrecido fehacientemente la posibilidad de participar, en al menos el 51% de la propiedad del proyecto, a aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, radicadas en el municipio en el que se pretende situar su instalación o en los municipios limítrofes al mismo y que consigan, al menos, la participación efectiva de un 20%."

"La oferta de participación local prevista en los apartados 2 y 3 del presente artículo será obligatoria siempre que el proyecto de generación renovable esté ubicado en el suelo público. Si no llegaran al 40% el número de personas físicas o jurídicas interesadas, se ampliará la oferta a las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, radicadas en los municipios limítrofes. En caso de seguir sin agotarse el 40%, se extenderá la oferta a las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, radicadas en Navarra."

"Asimismo, ambas partes se comprometen a incentivar e impulsar la participación local, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 LFCC. Para ello, se articularán los métodos y herramientas administrativas y tecnológicas que en cada momento se consideren más adecuadas y beneficiosas con el fin de alcanzar este objetivo. El ámbito territorial principal para la participación social y pública del proyecto será el de la Comarca de Pamplona."

AKORDIOAN ALDATZEKO PROPOSAMENAK

1. Enpresa sustatzaileak %100eko partaidetza eskaini dezala.
2. Partaidetza lokala gutxienez %51koa izatea, eta hori lortzea. (7 puntu laranja eta 6 urdin)

ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA

1. Eguzki Sarbil SLri **planteatuko zaio** parte-hartzea % 100era iritsi ahal izatea (izan ere, bigarren saioan esan zuen ez zuela inolako eragozpenik izango) eta **akordioan islatzea**.

2. Sarbil finka pribatua da, baina ebakuazio-linea lur publikotik igarotzen da, eta, proiektuaren parteenez, % 51 eskaini behar dute. Akordioan jasota dago "... proiektua 4/2022 Foru Legearen 36. artikuluan ezarritakora egokituko da...", eta, beraz, jada jasota dago % 51ren derrigortasuna. Parte-hartze publiko eta komunitarioaren % 51 hori lortzea edo gainditzea **benetako erronka da**, eta administrazio publikoen maila guztien konpromisoa eskatuko du (udalak, mankomunitateak, Nafarroako Gobernua, agentziak...), baita herritarrena ere, banaka edo taldeka (komunitate energetikoak edo beste elkarte batzuk). Enpresari sustatzaileari eskatuko diogu, Nafarroako Gobernuan aurkeztuko ditugun alegazioen bidez (aurrerago azalduko dugu), plangintza bat aurkez dezala tokiko partaidetzaren %51 nola lortuko duen azaltzeko.

EBATZI GABEKO KEZKAK ETA GALDERAK

1. Nola iritsiko gara %51 horretara, diru asko izango dela kontuan izanda?
2. Jabetza ez bada %51ra heltzen, zer egin dezake udalak? Akordia atzera bota?
3. Zer da partaidetza publikoa? Zer komunitarioa? Norbanakoen jabetza nola hartzen da kontuan, publiko ala pribatu bezala? zein paper izan dezake Etxaurindarra Elkarrekin?
4. Inbertsoreak sar daitezke?
5. Goiener bezalako irabazi asmorik gabeko kooperatiba bati eskaintza egitea planteatu daiteke?

ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA

1. **Benetako erronka**, konpromiso eta bultzada publiko-komunitario oso indartsua eskatuko duena. Jarraipen batzordeak lan zorrotza egin beharko du. Enpresa sustatzaileari eskatuko diogu, Nafarroako Gobernuan aurkeztuko ditugun alegazioen bidez (aurrerago azalduko dugu), plangintza bat aurkez dezala tokiko partaidetzaren % 51ra nola iritsi nahi duen azaltzeko.

2. **Ez da planteatzen** akordia baliogabetzea lortzen den partaidetza-ehunekoaren arabera. Izan ere, portzentaje horregatik alde batera utziko bagenu, proiektuari hobekuntza batzuk bermatzen dizkioten gainerako atalak ez lirateke egongo.

3. Parte-hartze publikoa administrazio publikoek egiten dutena da, eta komunitarioa herritarrek banaka edo taldeka egiten dutena. Adibide gisa, Etxaurindarra, komunitarioa izango litzatekeenak, proiektuaren **jabetzan parte hartzeko** aukera izango luke, edo, bestela, ekoizten den energiaren zati bat **autokontsumo modalitatean** eskuratzeko akordio bat sinatuz.

4. eta 5. **Jabetzan parte hartzeko aukera**, hasiera batean, herritarrei eta administrazio publikoei planteatu behar zaie, zirkulu zentrokideetan, eta, ondoren, beste eragile mota batzuei, hala nola, herritarren energia komunitateei edo kanpoko beste inbertitzaile batzuei, esate baterako, Goiener eta Som Energiari, haiekin harremanetan jar gintezke horretarako.

Energia prezio merkeagoan

AKORDIOAN JASOTZEN DENA

"Con el objetivo de que el precio de la energía quede fijado a largo plazo, se negociará y firmará un contrato bilateral de compraventa de energía PPA (power purchase agreement) con la clientela de este proyecto, que repercuta en un beneficio para la ciudadanía y las PYMES y permita atender a posibles casos de pobreza energética."

Con el fin de promover el mantenimiento de la industria y el empleo comarcal, se abrirá la posibilidad de negociar y firmar un contrato bilateral de compraventa de energía PPA (power purchase agreement) con las empresas de la zona, comenzando por las más cercanas, donde el precio de la energía quede fijado a largo plazo, que suponga un suministro energético renovable que facilite el cumplimiento de los compromisos de descarbonización, que repercuta en su electrificación y mediante la obtención de unos precios de suministros beneficiosos aseguren su competitividad y el arraigo en la comarca."

AKORDIOAN ALDATZEKO PROPOSAMENAK

- Ez da proposamenik egin

ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA
Ez da proposamenik egin
EBATZI GABEKO KEZKAK ETA GALDERAK
1. Industriaren izaera definitu daiteke? ETEei bakarrik, adibidez. 2. Nola sortuko eta negoziatuko da energia merkeagoa, une honetako energiaren prezioa ia zero baldin bada? 3. Bateriak ezartzeko Sarbil Eguzkiren proiektuak eragin dezake?
ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA
1. Industriari energiarako sarbidea ukatzea kaltegarria da, industria elektro-intentsiboa eta CO2 igorlea baita. Egin daitekeena, akordio baten bidez, bakoitzak eskuratzen duen energia kopurua mugatzea da, lehentasuna herritarrek, administrazio publikoak eta ETEek izan dezaten. 2. Energiaren prezioa ez da zero eguneko une guztietan, eta prezio hori faktore askok baldintzatzen dute (Alemaniako ekoizpena, baldintza meteorologikoak, etab.), eta, gainera, ekoizpenaren eta kontsumoaren prezioa erabat desberdina da; beraz, oraindik ere interesgarri izaten jarraitzen du energia merkeagoa lortzeko asmoak, bai autokontsumoan, bai aldebiko kontratuetan. 3. Bai, Josuk aurreko egunean aipatu zuen proiektua bateriekin hibridatzea planteatzea zezakeela, hori baita energia berriztagarriaren ekarpena erregulatzeko modurik onena, eta, bateriak jarritz gero, EZ zela Sarbilen izango ere esan zuen. Argitu nahiko genuke hori ez dagoela jasota Nafarroako Gobernuan aurkeztu duten proiektuan.

Onurak bailaran

AKORDIOAN JASOTZEN DENA
<i>"Una parte de los beneficios resultantes de la operación de la planta de generación renovable se destinarán a proyectos de carácter social en la comarca."</i>
AKORDIOAN ALDATZEKO PROPOSAMENAK
1. Proiektuen izaera izan dadila soziolaborala edota ingurumenekoa (mugikortasuna, elektrifikazioa, mugikortasunean eragina izango dutenak...), eskualde ikuspegiarkein, zuzenean eragingo dien kontzejuei ere ekarpena egingo dietena, eta irabazi asmorik gabeko enpresek kudeatuta. (9 puntu urdin eta 1 laranja) 2. Zein proiektutara eta zenbat bideratuko den herritarren partaidetza edo kontsulta bidez erabakitzea.
ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA
1. "Izaera soziala" aipatzean, aukera guztiak zabalik utzi nahi izan dira, izan ere, soziolaboralak eta ingurumen arlokoak ez diren proiektuak egon daitezke. Akordioan jasota dago, halaber, "Merkataritza Erakundeak ingurumena konpentsatzeko proiektuetara eta biodibertsitatea hobetuko duten proiektuen azterketara baliabideak bideratzeko konpromisoa" hartzen duela. Beraz, ingurumenaren alderdia islatuta dago. Akordioak ez du proiektu horien izaera mugatzen, hori mugatzea arriskutsua izan daitekeelako, etorkizunean beste gai batera bideratu nahi bada. 2. Eguzki Sarbil SLri planteatuko zaio akordioari gehitzeko.
EBATZI GABEKO KEZKAK ETA GALDERAK
1. Sor daitezkeen gatazkak direla eta, proiektua ez egiteko aukera planteatzea.
ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA
1. Udalak ez du proiektua gauzatzen den ala ez erabakitzeko ahalmenik, eta, beraz, ezin du proiektua ez egitea

erabaki. Nolanahi ere, gatazka sozialengatik proiektu bat ez egitea beto arriskutsua izango litzateke, edozein proiektuk (adibidez, Etxauriko Osasun Zentroak, besteak beste) gatazka sozialak sor ditzakeelako, eta nola neurtzen dugu? Horrek ekar dezake proiekturik ez garatzea, inon ez.

Ingurumenaren babes handiagoa

AKORDIOAN JASOTZEN DENA

“...el proyecto se ajustará a lo establecido en el artículo 36 de la Ley Foral 4/2022, de 22 de marzo, Cambio Climático y Transición Energética (en adelante, LFCC).

Unido a ello y además de la tramitación y obtención obligatoria de la Declaración de Impacto Ambiental, las partes firmantes evaluarán durante la construcción y a los 2, 5, 10 y 15 años los impactos del proyecto renovable sobre la biodiversidad de la zona y el medioambiente. Para ello, la mercantil se compromete a destinar recursos a proyectos de compensación medioambiental y al estudio de proyectos que mejoren la biodiversidad.”

AKORDIOAN ALDATZEKO PROPOSAMENAK

1. Inpaktuaren ebaluazioa ere legeak eskatzen duena baino exigenteagoa izatea, herritarren kezka nagusiak bilduz: sute arriskua, tenperatura igoera, akuiferoen kutsadura... (6 puntu urdin)
2. Espreski aipa dadila erakunde independente batek egingo duela inpaktuaren ebaluazioa. (Puntu urdin 1)
3. POT3-n arautzen den desmantelamendua akordioan jaso: nork edo zein entitate juridikok egingo duen, fidantza nork jarriko duen... (4 puntu urdin)
4. Epealdia 30 urtera arte luzatzea, 20 eta 25 gehituta.

ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA

1. Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa Nafarroako Gobernuak araututako eta egindako izapide bat da, eta udalak ez du aldatzeko gaitasunik; nolanahi ere, **oso zorrotza da**, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio negatiboa izateagatik bertan behera geratzen diren proiektu berriztagarri ugari erakusten dutenez.

2. Hasierako ingurumen inpaktuaren ebaluazioa ezin da “pribatizatu”. Beste gauza bat da parkea eraiki ondorengo inpaktu azterketa enpresa sustatzailearekin harremanik ez duen erakunde batek egitea. **Eguzki Sarbil SLri planteatuko zaio akordioan gehitzeko.**

3. Parkea eraistea berariaz aurreikusita dago Ingurumen Inpaktuaren Azterlanean, eta instalazioaren bizitza baliagarriaren osteko nahitaezko azken fase gisa, lursaila jatorrizko egoerara lehengoratzeko helburu argiarekin.

4. Eguzki Sarbil SLri planteatuko zaio proiektuak zonako biodibertsitatean eta ingurumenean dituen inpaktuen azterketa **5 urtean behin egitea**, instalazioaren bizitza baliagarria amaitu arte (25-30 urte).

EBATZI GABEKO KEZKAK ETA GALDERAK

1. Proiektuaren “agroboltaiko” izaera bermatzeko akordioan zerbait gehitu daiteke?
2. Plakak euren bizitza bukaerara iristen direnean, proiektuaren luzapena legez posible da? Proiektuan jasota dago plakak berritzeko aukera?

ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA

1. **Ondo iruditzen zaigu** akordioan sartzea proiektuak izaera agroboltaikoa izan beharko duela, izan ere, udalak proiektuari egingo dion alegazioetako bat da (aurrerago azalduko dugu), agroboltaikoa izateko baldintzei dagokienez. **Eguzki Sarbil SLri planteatuko zaio akordioari gehitzeko.**

2. Proiektuan ez da aipatzen luzatzeko aukera. Eguzki parke batek ere ez du instalazioen iraungitze data finkorik eta derrigorrezkorik, baina bizitza baliagarria 25-30 urte bitartekoa izaten da. Amaierara iristen direnean, honako hauek egin daitezke: birpotentziatu (plaka zaharren orde berriak jarri) edo itxi eta desegin.

Proiektu gehiagorik ez Sarbilen

AKORDIOAN JASOTZEN DENA
<i>"Si este proyecto finaliza con éxito, será el único proyecto energético a desarrollar en el espacio del monte Sarbil (Etxauri) por parte de la mercantil."</i>
AKORDIOAN ALDATZEKO PROPOSAMENAK
1. Enpresa sustatzailearen lurra espreski aipatu akordioan. (5 puntu laranja eta 3 urdin)
ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA
1. Eguzki Sarbil SLri planteatuko zaio akordioari gehitzeko. Hitz egingo dugu akordioan horrela ager dadin.
EBATZI GABEKO KEZKAK ETA GALDERAK
1. Bere lurra inori ez saltzeko konpromisoa sar daiteke akordioan?
ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA
1. Ezin da, akordio honen eta udalaren eskumena ez delako lursail pribatu baten salmenta debekatzea.

Jarraipen batzordea

AKORDIOAN JASOTZEN DENA
<i>"Con el fin de coordinar las actuaciones previstas en el marco del presente Convenio, se crea una Comisión de Seguimiento, que estará compuesta por las personas que se detallan a continuación. Por parte del Ayuntamiento:</i> • Alcaldía • Concejalía de Urbanismo y Vivienda / Comisión de Medio Ambiente y Desarrollo Sostenible • Secretaría • Personal municipal responsable del área de energía, arquitectura o Medio Ambiente. <i>Por parte de la mercantil:</i> • El administrador de Sarbil Eguzki SL. • Personal técnico responsable del proyecto <i>Podrán asistir a las reuniones de esta Comisión las personas expertas que se designen en cada caso por las partes, y cuya presencia se considere necesaria para el mejor desarrollo de las acciones planteadas en el convenio."</i>
AKORDIOAN ALDATZEKO PROPOSAMENAK
1. Nafarroako Gobernuaren edo bestelako erakunde publikoen (mankomunitatea, Nafarroako Energiaren Institutua) partaidetza gehitu (udalaz gaindikoa). 2. Gizarte zibilaren (unibertsitateak, adibidez) edota herritarren ordezkaritza bat gehitu batzordean. 3. Urtean behin akordio honen kontu ematea egin: zer gertatuko da akordioa betetzen ez bada?
ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA
1. Etxauriko Udalaren eta enpresa sustatzailearen arteko konpromisoa da akordioa; beste administrazio edo eragile batzuek arbitrajean parte hartu ahal izatea aukera bat izan daiteke, baldin eta onartzen badute. Bai, akordioan sar daiteke. Adibidez, mankomunitateak izan litezke, hala nola IM (Iruñerriko Mankomunitatea) eta ATENA (Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia, energia eredu jasangarri bateranzko bilakaera sustatzeko eta klima aldaketak Nafarroan dituen ondorioen aurkako borrokan laguntzeko sortua). 2. eta 3. Bai, gehitu daiteke Jarraipen Batzordean herritarren ordezkaritza egotea, eta puntu bat gehitu daiteke akordioari urtean behin jarraipena egiteko.
EBATZI GABEKO KEZKAK ETA GALDERAK
1. Zer gertatuko da akordioa betetzen ez bada?

ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA

1. Akordioak ez du zehapenen edo ordainen atalik ez-betetzeen kasuan, nahiz eta Jarraipen Batzordearen jarraipen araubideak, halakorik gertatuz gero, egoki jotzen diren neurriak hartuko dituen. **Udaleko idazkaritzarekin aztertuko da**, ea horri buruzko atalen bat gehitu daitekeen.

ETXAURIKO UDALARENTZAT PROPOSAMENAK

Udal planak eta arauak

Atal honetan, herritarrek Etxauriko Udalari egin dizkieten bestelako eskaerak eta proposamenak jaso ditugu.

1. Udalak ingurumen politika bat zehaztea Sarbil mendiaren ingurumen balioa handitzeko: tokiko zuhaitzak landatu, nekazaritzak erasandako inguruneak berreskuratu, pinuak kendu... Proiektuaren irabaziak politika hauetara ere bideratu.
2. Udalaren plan urbanistikoan, energia proiektu handiak debekatzea.
3. Udalaren industria planetan, erregulatu enpresa handiak ez daitezen etorri (energia arrazoiengatik, adibidez, datuen zentro erraldoiak), eta ETEak eta enpresa proiektu mota batzuk sustatzeko.
4. Herritarren partaidetza eta kontsulta etorkizuneko proiektuetan, erabakiak hartzen hasi aurretik.
5. Gaiak sortu dezakeen gatazka eta polarizazioa kontuan harturik, proiektua ez egitea baloratzea.

ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA

1. Udalaren parte hartze teknikoan, finkaren jabetzaren inplikazioan eta herritarren lankidetzan oinarritutako ikuspegiaren bidez ekin dakioke Sarbil finkaren ingurumen politikari. Proiektuaren onurak politika horiei esleitzeari dagokionez, gai hori jada akordioan jasota dago: “enpresak ingurumena konpentsatzeko proiektuetara eta biodibertsitatea hobetuko duten proiektuen azterketara baliabideak bideratzeko konpromisoa hartzen du”.

2. Udal erakundeoi dagokigu proiektu energetiko horiek arautzea, antolatzea eta hirigintza planen bidez baldintzatzea. **Ezin da debekatu udal lurraldearen %100ean**, Nafarroako Gobernuaren araudiarekin gatazkan sartuko litzatekeelako, besteak beste, “emisioak murrizteko helburuak betetzea eragotziko lukeelako”.

3. Udalaren plan industrialak: **dagoeneko lantzen ari garen proposamena da**, Etxauriko eta bailarako bizilagun talde batek industrialde bat egitea proposatu zigulako. Gure helburua lurraldeko bizilagunen enpresa txikien garapena bultzatzea da.

4. Herritarren parte hartzea udalaren ohiko lanaren parte da. Proiektu guztiek ez dute kontsulta maila bera eskatzen, eta uste dugu udal lanaren garapenean udalak erabakitzen duela, eta une honetan prozesu deliberatibo batean gaude. Nolanahi ere, akordioko baldintzek **EZ dute** Udala konprometitzen, proiektuaren sustatzailea baizik.

5. Lehenago erantzun da. Udalak ez du proiektua egiten den ala ez erabakitzeko ahalmenik, eta, beraz, ezin du proiektua ez egitea erabaki.

Udalak herritarren ordezkari eta ahots

Multzo honetan, Etxauri eta bailarako udalei eskaera egiten zaie herritarren nahiak beste erakunde batzuetara bideratzeko lana egin dezaten.

1. Nafarroa mailako energia proiektuen plana exijitu, planifikazio energetiko bideragarria Nafarroa osorako, irizpide eta beharren arabera egin daitezen proiektuak. (8 puntu urdin eta laranja 1)
2. Nafarroako Gobernuaren inplikazioa lortu Jarraipen Batzorderako, eta akordio zehatzak lortzea bailarako udalek Gobernuarekin.
3. Eskualdeko udalak energia proiektu handien kontra posizionatzea.

ETXAURIKO UDALAREN ERANTZUNA

1. Aspalditik (2020) Nafarroako Gobernuari helarazten ari gatzazkion gai bat da; nire lehen legegintzaldian, Ingurumeneko kontseilariarekin egon ginen, eta esan zigun horretan ari zirela. Nolanahi ere, plangintzan oinarritzen ez den sistema neoliberal batean bizi gara, merkatuari eta ekimen pribatuari pisu handiagoa ematen zaiena, eta gutxiago erakunde publikoaren esku-hartzeari.

2. Azkenean Jarraipen Batzordea sortzen bada, Nafarroako Gobernuaren parte hartzea izaten saiatuko gara. Ibarreko udalekiko akordioei dagokienez, prozesuak aurrera egin ahala ikusiko eta landuko dira.

3. Horrelako proiektuak orokorrean gaitzesteko jarrera, ñabardurarik eta baldintzatzailek gabe, ez dugu ulertzen. Erabakiak kasuz kasu hartu behar dira, oso eragin desberdinak izan baititzakete kokapenaren, ezaugarrien eta baldintzen arabera. Horregatik, proiektu bakoitza banaka aztertu behar da posizio bat finkatu aurretik. Nolanahi ere, proiektu honekin, azkenean egiten bada, udalak ziurtatzen du gutxienez ez dela proiektu gehiagorik garatuko lur horietan.

ALEGAZIOAK

Etxauriko Udalak alegazioak aurkeztu dizkio proiektuari maiatzaren 12an. [Webgunean daude ikusgai alegazio guztiak](#), eta hona ekarri duguna maiatzaren 4ko saioan udalak egindako laburpena da:

1. Akordioan ez da agertzen proiektu hori egiten bada, Sarbil finkako (Etxauri) proiektu bakarra izango dela.
2. Plantetako bat zepatik 330 metrora dago, eta gauza bera gertatzen da ebakuazio-lerroaren erdialdearekin.
3. Proiektuaren izaera "agrovoltaikoa" justifikatzea.
4. Ebakuaziorako lurpeko linea, gehienbat, finka partikularretatik igarotzen da, eta ez jada eginda dauden bideetatik.
5. Parte hartze publikoa eta tokikoa bermatzeko erabili beharreko plangintzaren eta plataformaren aurrerapena.

Prozesuaren balorazioa

Hiru lan saioetan balorazio orriak banatu dira, eta hau da jasotakoaren laburpena.

	1. Saioa	2. Saioa	3. Saioa
Saioaren antolaketa	8.5	8.5	7.8
Landutako edukiak	7.0	8.4	7.6
Erabilitako metodologia	8.2	8.2	7.9

Saioaren gidaritza/dinamizazioa	8.3	8.1	7.9
Saioan egon den giroa	8.1	8.4	8.0
Balorazio orokorra	8.0	8.3	7.4

Prozesuak balorazio positiboak izan ditu oro har, batez bestekoak 8 ingurukoak dira. Bereziki positiboki baloratu dira antolaketa eta saioetan nagusitu den giro eraikitzailea. Edukien aldetik, lehen saioan, aditu independenteen falta sumatu zela jaso da oharretan, nahiz eta material teknikoa modu argian landu zela aipatzen den.

Aurrera begirakoak

Etxauriko Udalak, maiatzaren 12an Nafarroako Gobernuan alegazioak aurkeztu ondoren, hurrengo pausuak ematen hasia erabaki du:

1. **Hitzarmena eguneratzea:** Sarbil Eguzki S.L. enpresa sustatzailearekin hasierako akordioa berrikusteko eta eguneratzeko prozesuari ekingo dio, txosten honetan jasotako baldintzak eta bermeak sar ditzaten eskatzeko.
2. **Nafarroako Gobernuaren erabakiari aurea hartzea:** Nafarroako Gobernuak proiektuari behin betiko baiezkua emango balio, udalak zehaztuta eduki nahi ditu zein izango diren egin beharrekoak (adibidez, herri batzarra deitzea, Jarraipen Batzordea berehala eratzea, etab.). Pauso horiek definitzeari ekingo dio.

Eranskinak

Prozesu osoan erabilitako aurkezpenak eta saioen aktak Etxauriko Udalaren webgunean zintzilikatu dira, txosten honen eranskin gisa.

- Bost saioetan erabilitako aurkezpenak: Emunek prestatutakoak eta hizlarienak.
- Hiru lan saioen eta deboluzio saioaren aktak.
- Memoria hau bera.